01001) DEITURA: 006-012

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 1285 metro

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 1,5 eta 2 metro artekoa

d) DESKRIBAPENA: Bide hau Arakama garakoa baserrian hasi eta Aierdi baserrian bukatzen da. Zati batzuetan harrizkoa eta beste batzuetan lokatzeko zorua duen bide bat da, 2 metrotako zabalerarekin 375 puntu arte, eta ondorioz, lurrorotako ibilgailuentzat erabilgarria. Puntu horretatik aurrera 1,5 metroko zabalera arte estutzen da eta malda aldapatsuak ditu, iraganezina izanik edozein ibilgailuentzat.

Bidean hainbat itxitura daude, baina hauek ez dute igarotzea galarazten.

e) KOMUNIKAZIOA: Bide hau inguruko lursailetara sartzeko erabiltzen da. Eta bigarren zatia gaur erabiltzen ez den arren, Aierdi baserriarekin komunikatzen zuen.

f) BIDEAREN EGOERA: Gutxi gora behera bidearen erdira arte bidea lurrorotako ibilgailuentzat erabilgarria da, zati batzuetan zorua potxongo eta lokatzez beteta egon arren. Baina bidearen bukaera iraganezina da, trazatuan dituen sasiengatik.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: Bide honek inguruari zerbitzua ematen dio eta beraz, erabilera eta zerbitzu publikokoa izanik. Hori dela eta, inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasunera igarotzeko.

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Esan den bezala, bidearen zati batzuk potxongo eta lokatzez beteta daude, ondorioz, zorua konpontzea gomendatzen da.

Bestalde, bidearen azken zatia sasiz janda dago, beraz, bidea garbitu beharko litzateke, moztuta gelditu ahal izan diren zatiak berreskuratuz, desagertzea galarazteko eta aurrerantzean usurpatua ez izateko.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

l) ARGAZKIAK:

- 07073-0775: Arakama garakoa baserriaren ondoan ateratako argazkia, bidea hasten den lekuan.
- 07073-0776: Bidean dagoen lehengo itxituraren argazkia. Irekitzea zailtasuna ez duen itxitura bat da.
- 07073-0777: Bidearen argazkia pertsona eta ganaduarentzako erabilgarria den arren, potxongoak dituen lokazti bat den zati batean.
- 07073-0778: Askatu daitezkeen lau sokaz osaturiko itxitura baten argazkia.
- 07073-0779: Askatu daitezkeen lau sokaz osaturiko itxitura baten argazkia.

- 07073-0781: Bidea metro erdi arte estutzen den zatiaren argazkia, lurrorotako ibilgailuentzat iraganezina. Argazkian nabari ez arren, malda handia dauka.
- 07073-0782: Bidearen dagoen beste itxitura baten argazkia. Itxitura pasa ondoren, bidea ezkerretik jarraitzen du, baina ez da erraza sarrera ikustea.
- 07073-0783: Beste itxitura bat ikusten den argazkia, eta erabilera ezagatik sasiz betetzen hasitako zatia.
- 07073-0784: Bidearen argazkia Aierdi baserrira jaisten denean.
- 07073-0785: Aierdi baserriaren argazkia, bidea eskuinetara bukatzen.

01002) DEITURA: 009-010

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 270 metro

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 3 metro

d) DESKRIBAPENA: Nahiko egoera txarreko aglomeratuko zorua duen bidea. GI-3261 errepidean hasi eta Dirinti barrena baserriraino iristen da.

e) KOMUNIKAZIOA: Bide hau Dirinti barrena baserrira ibilgailuz joateko aukera ematen duen bide bakarra da.

f) BIDEAREN EGOERA: Bidearen aglomeratua nahiko egoera txarrean dago, eta hainbat lekutan altxa egin da.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: Dirinti barrena baserrira ibilgailuz joateko bidea bakarra da eta beraz, erabilera eta zerbitzu publikokoa da, hori dela eta, bidea inbentarioan sartzea aski izango da, formalki udal ondasunean sartzeko.

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Bide honek aglomeratua oso egoera txarrean du, eta ondorioz, hau konpontzea beharrezkoa da, batez ere kontuan hartzen bada Dirinti barrerak baserrira ibilgailuz joateko bide bakarra dela.

l) ARGAZKIAK:

- 07073-0026: Argazkiaren atzealdean GI-3261 errepidea eta bide honen lehen zatia ikus daitezke.
- 07073-0027: Argazki honetan aglomeratuaren egoera ikus daiteke.
- 07073-0028: Bidearen azken zatia ikus daiteke, Dirinti barrena baserriaren ondoan dagoena.

01003) DEITURA: 011-012

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 480 metro.

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 3 metro.

d) DESKRIBAPENA: Bide hau GI-3261 errepidean hasten da eta Arakama garakoa baserriraino iristen da, Arakama Azpikoa baserrira joateko zati txiki bat barne hartuz. Bidearen zorua aglomeratua da eta egoera onean dago.

e) KOMUNIKAZIOA: Bide hau, Arakama garakoa eta Arakama azpikoa baserrira ibilgailuz joateko aukera bakarra da.

f) BIDEAREN EGOERA: Aglomeratuzko zorua duen bide hau egoera onean dago.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: GI-3261 errepidean hasi eta Arakama garakoa baserriraino iristen den bide hau, Arakama baserrira doan zati bat barne, erabilera eta zerbitzu publikokoa da, ondorioz, bidea inbentarioan sartzea aski izango da, formalki udal ondasunean sartzeko.

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Fitxa honetako bideari buruz egin daitekeen gomendio bakarra, edozein udal-ondasunek eskatzen duten arta egitea da.

l) ARGAZKIAK:

- 07073-0024: Argazki honetan bidearen hasiera ikusten da, eskuinetara GI-3261 errepidea eta atzealdean, Arakama azpikoa baserria.
- 07073-0025: Argazki honetan bidea egoera onean aurkitzen dela ikus daiteke.

01004) DEITURA: 013-014

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 600 metro.

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 2,5 metro.

d) DESKRIBAPENA: Zabor-legarreko zorua eta erdian, luzera, belar zerro bat duen bide hau, GI-3251 errepidean hasi eta Sagasti baserriraino iristen da. Baserrira iritsi baina metro batzuk lehenago, ate bat itxi bat dago, baina irekitzeko ez dauka arazorik.

e) KOMUNIKAZIOA: Bide hau Sagasti baserrira ibilgailuz joateko aukera bakarra da.

f) BIDEAREN EGOERA: Bide hau, gaur egun, luzeran autoen gurpilak egindako zabor-legarreko bi zerro, eta erdian belarrezko zerro batekin osatzen da.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: Beste bide batzuekin gertatzen den moduan, baserri batek duen ibilgailuentzako bide bakarra da, beraz, erabilera eta zerbitzu publikokoa, eta bidea inbentarioan sartzea aski izango da, formalki udal ondasunean sartzeko.

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Bidearen zorua oso egoera txarrean dago, beraz, hau konpontzea gomendatzen da.

l) ARGAZKIAK:

- 07073-0020: Argazki honetan GI-3251 errepidea eta bide honen hasiera ikusten dira.
- 07073-0021: Bidearen erdiko zatia ikus daiteke.
- 07073-0022: Argazki honetan Sagasti baserrira iritsi baino metro batzuk lehenago dagoen itxitura bat ikusten da, itxiturak ibilbidea moztu arren ez du igarotzea galarazten.
- 07073-0023: Argazki honetan bidearen azken zatia ikusten da, eta Sagasti baserria atzealdean.

01005) DEITURA: 017-018

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 550 metro

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: metro 1 eta 2 metro artekoa, eta puntu batzuetan 3 metro hartzen ditu.

d) DESKRIBAPENA: Bidea, bere lehen zatian, lursail batetara sartzeko erabiltzen denez, 2 metrotako zabalera mantentzen du. Hortik aurrera, eta Oria ibaiaren ibilbidera jaitsi arte, lurrean markatutako trazatua eta metro bateko zabalera du, sasiz betea, eta ondorioz, iraganezina. Oria ibaiaren ibilbidearen ondoan, 2 metrotako zabalera berreskuratzen du, eta alde batean harrizko horma batek eta bestean ibaia berak mugatzen du. Igarotzea galarazten ez duten hainbat ate pasa ondoren, GI-3261 errepideko 18 puntura iristen da, han bukatuz.

e) KOMUNIKAZIOA: Bai hasieran, bai bukaeran bideak bere ibilbidea mantentzen du, inguruko baserritarrek erabiltzen baitute. Gainerako zatiak erabilera gabeko bide baten adibide argia da.

f) BIDEAREN EGOERA: Hasierako eta bukaerako zatiak lurrorotako ibilgailu batekin erabili daitezke, erdiko zatia ordea, oinez ere iraganezina da.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: Aipatu den bezala, gaur egun lehenengo eta azken zatiak bakarrik erabiltzen dira, erdiko zatia landaretzaz beteta baitago eta oinez ere iraganezina baita. Bidean hainbat itxitura daude, baina ireki daitezkeen ateak direnez, ez dute pasatzea galarazten, berez ezin da usurpazioaz hitz egin, egia den arren hauetako batzuetatik oinez bakarrik pasa daitekeela.

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Bidearen lehen eta azken zatiak trazatua mantendu arren, lursailetara joateko erabiltzen direlako, komenigarria litzateke hauek desbrozatzea.

Erdiko zatia ordea, sastrakaz beteta dago eta iraganezina da. Hori dela eta, ikuspuntu juridikotik begiratuta garbitu egin beharko litzateke, eta berriro erabiltzeko baldintzetan jarri, modu honetan trazatua desagertzea eragotziz eta aurrerantzean usurpatua ez izateko.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

Bestalde, 07073-0034 argazkian ikus daitekeen itxiturak ibiltariak igarotzea utzi arren, bertatik ezin dira ibilgailurik pasa, hori dela eta, juridikoko itxitura hori ireki beharko litzateke, pasatzea galarazten ez duten beste itxitura batengatik aldatuz, horretarako jabeei irekitzeko eskatu beharko litzaieke edo, bestela, udalak egin beharko luke ofizioz.

Sor litekeen aurkako edozein jarrerak ofiziozko berreskurapeneko espedientea irekitzeko zioa emango luke, Tokiko Entitateen Ondasunen Arautegian xedatutakoaren arabera lege-testu bereko 46. artikuluan eta hurrengoetan zehazten delarik prozedura. Eskumen hori edozein unetan egin edo gauzatu daiteke, seguruenera ere ondasun publikoa baita.

Horretarako prozedura, ondoko ekintza hauetan zehaztuko litzateke:

a) Udal Korporazioaren akordioa (Plenoa) espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren berri emanez. Aipatutako aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-oholtzan jarriko da 15 egunez.

b) Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.

c) Hilabeteko epean, iragarki-oholtzan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontatzen hasita, zerikusia duen pertsonek bere eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin batera.

d) Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.

e) Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonei espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.

f) Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, idazkariaren aldez aurretiko txostena aztertu ondoren.

g) Akordioari bi bidetatik egin dakieke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da, prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behin-betiko jabetza bada.

I) ARGAZKIAK:

- 07073-0030: Aurrealdean, 001-002 bidearen aglomeratua ikusten da, bide hau hasten den lekuarekin bat datorrena.
- 07073-0034: Bidearen hasieran dagoen itxitura bat ikusten da, ibiltariak igarotzea ez galarazi arren bai ibilgailuak pasatzea.
- 07073-0035: Argazki honetan bidearen lehen zatiaren itxura ikus daiteke, 3 metrotako zabalerako lurra eta harriko zoru garbia duena.
- 07073-0036: Bidearen lehen zatia, argazkian ikusten den zelaiara iritsi arte, egoera onean dago. Gune honetatik ibaira iritsi arte, ibilbidea lurrean marraztua dago eta guztiz nabaria da, baina sasiak janda dago.
- 07073-0037: Argazki honetan ikus daiteke, nola bidearen ibilbidea eskubialdean harrizko pareta eta ezkerrean ibaiaren ibilbidearen paretarekin mugatuta dagoen. Gune honetatik aurrera, bidean lurrorotako ibilgailuekin ibili daiteke.
- 07073-0038: Argazki honetan ikus daitekeen bezala, bidearen azken zatian hainbat itxitura daude, baina ez dute igarotzea galarazten.
- 07073-0039: Aurrealdean GI-3261 errepidearen asfaltoa ikusten da, eta nola fitxa honen bidea, bukatu aurretik, Arakama erreka gurutzatzen du hormigoizko zubi bat erabiliz.

01006) DEITURA: 018-046

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 155 metro.

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 3 metro.

d) DESKRIBAPENA: GI-3261 errepidean hasi eta Goikoetxalde baserrian bukatzen den, 3 metrotako zabalera duen hormigoizko bidea.

e) KOMUNIKAZIOA: Bide hau Goikoetxalde baserriak duen sarbide nagusia da.

f) BIDEAREN EGOERA: Egoera onean dagoen hormigoizko bide bat da.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: Goikoetxalde baserriaren sarbide nagusia den bide hau, erabilera eta zerbitzu publikokoa da, eta ondorioz, bidea inbentarioan sartzea aski izango da, formalki udal ondasunera igarotzeko.

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Fitxa honetako bideari buruz egin daitekeen gomendio bakarra, edozein udal-ondasunek eskatzen duten arta egitea da.

l) ARGAZKIAK:

- 07073-0062: Aurrealdean GI-3261 errepidearen aglomeratua ikusten da, eta hormigoizko bide honen hasiera.
- 07073-0063: Argazki honetan bidea Goikoetxalde baserrira iristen ikus daiteke.

01007) DEITURA: 509-396

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 470 metro

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 2 eta 2,5 metro artekoa

d) DESKRIBAPENA: Bide hau GI-3261 errepidean hasten da, Intxaurtxoeta baserriaren ondoan, eta Sagasti baserriaren ondoan bukatzen da, ibilgailuz 013-014 bidearen bidez sarbide duena.

Bidearen lehen 50 metroak kotxez erabilgarriak dira, eta gero, lurrezko zorua duen bide bat hasten da, 2,5 metrotako zabalera duena eta oinez edo lurrorotako ibilgailu batekin erabilgarria. Azken zatia, 40 bat metro ditu, 2 metrotako zabalera eta oinez erabilgarria da.

e) KOMUNIKAZIOA: Bide hau ibiltariak GI-3261 errepidetik Sagasti baserrira joateko erabiltzen da.

f) BIDEAREN EGOERA: Lurrezko zorua duen bide hau egoera onean dago.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: Sagasti baserrira joateko komunikabide bat da, erabilera eta zerbitzu publikokoa izanik. Hori dela eta, inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasunera igarotzeko.

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Bide honek edozien udal ondasunak eskatzen duen arta lana egitea baino gehiago ez du behar.

l) ARGAZKIAK:

- 07073-1202: Bidearen hasierako argazkia.
- 07073-1203: Bidearen egoera orokorraren argazkia.
- 07073-1204: Bidean Intxaurtxoeta baserriraino duen egoera orokorraren argazkia.
- 07073-1210: Bidearen egoera orokorraren argazkia.
- 07073-0864: Argazki honetan bidearen azken zatia ikus daiteke, Sagasti baserria atzealdean daukala.

01008) DEITURA: 020-021

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 625 metro

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 1 eta 2 metro artekoa

d) DESKRIBAPENA: Hasieran eta bukaeran 2 metrotako zabalera mantentzen duen bidea, lurrorotako ibilgailu batekin ibiltzeko aukera emanaz. Bidean, erdialdean, badago jausi bat duen zati bat, eta bertan bideak metro bateko zabalera du eta ezinezkoa da lurrorotako ibilgailu batekin igarotzea. Bidea GI-3261 errepidean bukatzen da.

e) KOMUNIKAZIOA: Hasierako eta bukaerako zatiak lursailetara sartzeko erabiltzen dira, eta erdiko zatia ordea, pertsonak eta animalientzako bidezidor bat da.

f) BIDEAREN EGOERA: Bide hau nahiko utzia dago, sasiak janda, baina norbait mantentzen saiatzen dela nabari da.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: Aipatu bezala lehen eta azken zatia lursailetara sartzeko erabiltzen da, eta erdikoa berriz, gizaki eta animalientzako bidezidor bat da, erabilera eta zerbitzu publikokoa dela argi egonik. Hori dela eta, bidea inbentarioan sartzea aski izango da, formalki udal ondasunean sartzeko.

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Bide hau nahiko utzita dago, eta egoera txarrean, hori dela eta, udalak garbitu egin beharko luke, desagertu diren zatiak berreskuratuz, bestela aurrerantzean usurpatua izan daiteke.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

l) ARGAZKIAK:

- 07073-0033: Bidearen hasiera 020 puntua, zorua belarrez estalia dagoela ikus daiteke.
- 07073-0040: Bidearen lehen zatiaren itxura ikusten da, bidea erabiltzen denez, egoera onean dagoena.
- 07073-0041: Bidearen zati batean oraindik ere zabalera handikoa da, baina metro erdiko bidezidor batetik ibiltzen da.
- 07073-0042: Bidearen erdiko zatia, bertatik ezinezko da lurrorotako ibilgailu batekin ibiltzea.
- 07073-0043: Bidearen azken zatia ikusten da, GI-3261 errepidera iristen denean.

01010) DEITURA: 055-056

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 470 metro (425+45 metro)

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 1,5 metro

d) DESKRIBAPENA: Bide hau GI-2637 errepidearen paraleloan doa, eta baserri arteko komunikazio bide bat da, bai oinez erabiltzeko bai animalientzako. Bidea GI-2637 errepidean hasten da, Maitegi baserriaren sarbide nagusi bezala, baina 10 metrotara ezkerretara biratzen du, benetako bidea hasiz, 1,5 metrotako zabalerakin eta lurrezko zoruakin. Hasierako zatian dagoen aska batek trazatua metro bat arte estutzen du, lurrorotako ibilgailuak igarotzea galaraziz. Bidearen zati bat ibili ondoren, bidea itxi egiten da, lursail batean egindako zuhaitzen mozketaren egur hondakinak daudelako, bidea desagertu ere egiten da. Aurrerago, bere egunean baserritako lursail batetik pinudiak ateratzeko egindako mendi-bide bat dago, baina inguruko baserritarren diotenaren arabera, mendi-bide hau herri bidearen gainean egin zena. Udalak ez badu ezer egiten bide hau desagertu egingo da.

> **1 bide-adarra (069-070)**: Bide nagusiak Borda baserrira jaisteko desbideratze bat du. Bide-adarrak 1,5 metrotako zabalera du eta lurrezko zorua.

e) KOMUNIKAZIOA: Bide hau Maitegi eta Benta baserriak komunikatzen ditu.

f) BIDEAREN EGOERA: 07073-0075 argazkian ikus daitekeen bezala, bidearen zati handi bat, egurra eta lohia tona baten azpian dago.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da. Gainera inguruko baserritarrak udalarena dela diote.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: Aipatu den bezala, bide honek Maitegi baserria Benta baserriarekin komunikatzen du, eta jabetza tituluaren konstantziarik ez egon arren, udalarena da antzina-antzinatik, inguruko baserrietako bizilagunek berretsi duten bezala.

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Kasu honetan, ondasun publiko bat usurpatu izanaren aurrean gaude, bidean pinudi baten mozketaren egur zatiak eta aska bat daudelako frogatzen delarik, hori dela eta Udalak lege-ikuspuntutik bidea berreskuratzeari ekin beharko lioke, edozein unetan egin ahal izango duena, Tokiko Entitateen Ondasunen Arautegiko 70. artikuluan xedatzen denez.

Berreskurapeneko espedientea ofiziozkoa izan daiteke, Tokiko Entitateen Ondasun Arautegiko 71. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Ondorioz, dauden egur zatiak kendu eta aska itxi egin beharko lirateke, berriro ere bertan ibiltzeko aukera emanaz.

Espedientea bide administratibotik hasteko Udal Korporazioaren aldez aurretiko onespena behar da, eta horrekin batera jabetza egiaztatzen duten agiriak, usurpazio berria ez bada, behintzat.

Bide administratibotik berreskuratzeko pribilegioak edo eskumenak Tokiko Korporazioak legeak onartzen dituen bitarteko konpultsibo guztiak erabiltzeko gaitzen ditu.

Horretarako prozedura aipatutako Ondasunen Araudiko 46. artikuluan eta ondorengoetan arautzen da eta ondoren adieraziko diren ekintzetan zehaztuko litzateke:

a) Udal Korporazioaren akordioa (Plenoa) espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren berri emanez. Aipatutako aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-oholtzan jarriko da 15 egunez.

b) Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.

c) Hilabeteko epean, iragarki-taulan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontatzen hasita, zerikusia duten pertsonek bere eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin batera.

d) Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.

e) Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonei espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.

f) Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, idazkariaren aldez aurretiko txostena aztertu ondoren.

g) Akordioari bi bidetatik egin dakioke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da, prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behin-betiko jabetza bada.

Bestalde, dirudienez partikular batzuek mendi-bide bat egin dute bide honen ibilbidea zenaren gainean, hori dela eta, ofizioko ikerketa bat hasi beharko litzateke, bizilagunek diotena egia den egiaztatzeko, eta mendi-bidea jabari publikokoa dela egiaztatzeko.

Ofiziozko ikerketa egiteko eskumena Tokiko Entitateen Ondasunen Araudiko 45. artikuluan onetsia dago, eta prozedura lege testu berdinaren 46. artikuluan eta ondorengoetan arautzen da, eskumen hori ustez jabetza publikoko edozein ondasun tarteko denean edozein unetan aplika daitekeelarik.

Horretarako prozedura ondoren adieraziko diren ekintzetan zehaztuko litzateke:

- Udal Korporazioaren akordioa espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren ezaugarrien berri emanez. Aipatu aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-taulan jarriko da 15 egunez.

- Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.

- Hilabeteko epean, Iragarki-taulan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontatzen hasita, zerikusia duten pertsonek bere eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin batera.

- Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.

- Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonei espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.

- Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, Idazkariaren aldez aurretiko txostena aztertu ondoren.

- Akordioari bi bidetatik egin dakioke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da,

prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behin-betiko jabetza bada.

I) ARGAZKIAK:

- 07073-0073: Bidearen lehen zatia ikus daiteke, Maitegi baserriko sarbidearekin bat datorrena. Baina 10 metrotara bidea ezkerretara biratzen da eta kontrako zentzuan itzultzen da, ezkerretako paretaren kontra.
- 07073-0074: Berriro ere bidearen hasiera ikusten da, baina ezkerretara GI-2637 errepidea ikusi daiteke, argazkia 10 metrotara dagoen biraketan atera baita. Bidea estutzen duen aska ere ikus daiteke, lurrorotako ibilgailuentzat iraganezina egiten duena.
- 07073-0075: Bidea egurrekin beteta usupatuta izen dela ikusten da, eta nola gaur egun lohiaz beteta dagoen.
- 07075-0076: Dirudienez herri bide gainean eraiki den mendi-bidearen argazkia. Atzealdean Altzibar baserria dago.
- 07075-0077: GI-2637 errepidetik mendi-bidearen bukaera ikus daiteke, eta eskuinetara Benta baserria.
- 07075-0078: GI-2637 errepidetik bidearen zorua diagonalean ikusten da.

01011) DEITURA: 057-058

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 80 metro

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 3 metro

d) DESKRIBAPENA: Hormigoizko 3 metrotako zabalera duen bidea, GI-3637 bidetik Aztiña baserrira sarbidea eman diona.

e) KOMUNIKAZIOA: Bide hau Aztiña baserrira joateko bide nagusia da.

f) BIDEAREN EGOERA: Bidea hormigoizko zorua du eta egoera onean dago.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: Aipatu den bezala, bide hau Aztiña baserriak GI-2637 errepidetik duen sarbidea da, erabilera eta zerbitzu publikokoa izanik. Beraz, Aipatu den bezala, Hori dela eta, ondasun hau inbentarioan sartzea, aski izango da formalki udal ondasunera igarotzeko.

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Fitxa honetako bideari buruz egin daitekeen gomendio bakarra, edozein udal-ondasunek eskatzen duten arta egitea da.

l) ARGAZKIAK:

- 07073-0072: Aurrealdean GI-2637 errepidearen aglomeratua ikusten da, eta hormigoizko mendi-bidea Aztiña baserrira jaisten.

01014) DEITURA: 062-065

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 150 metro

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 2,5 metro, zati baten batean 3 metro dituen arren.

d) DESKRIBAPENA: GI-2637 errepidetik abiatuta Altzibar goena, Altzibar erdikoa eta Altzibar barrena baserriei sarbidea eman eta Errota txiki baserrian bukatzen den bidea. Lehen zatia 3 metrotako zabalera du, baina Altzibar baserritik aurrera 2,5 metrotakoa da. Aglomeratutako zorua du.

e) KOMUNIKAZIOA: Inguruko hainbat baserrietarako sarbide nagusia da.

f) BIDEAREN EGOERA: Hasierako maldan bidezuloko gune bat dago, baina gainerako bidea egoera onean dago.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: Bide hau ingururako komunikabide garrantzitsua da, Altzibar goena, Altzibar erdikoa, Altzibar barrena eta Errota txiki baserriei sarbidea ematen baitie; argia izanik erabilera eta zerbitzu publikokoa dela, hori dela eta, inbentarioan sartzea aski izango da formalki udal ondasunera igarotzeko.

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Bidearen lehen zatiak zorua konpontzea behar du, eta bidearen gainerako zatiak, edozein udal ondasunak eskatzen duen arta lana egitea besterik ez.

l) ARGAZKIAK:

- 07073-0085: GI-2637 errepidean ateratako argazkia, bertan bidearen lehen malda ikusten da, eta nola leku batzuetan narriadurako guneak dituen.
- 07073-0084: Argazki honetan bide nagusira sartzeko beste malda ikusten da (GI-2637 errepidetik sartzeko malda bat dauka eta beste bat ateratzeko).
- 07073-0083: Argazki honetan bidearen itxura nabari da – zabalera estukoa – eta atzean Altzibar baserria ikusten da
- 07073-0079: Bidearen azken zatia Errota txiki baserrira iristen denan.

01015) DEITURA: 071-072

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 585 metro

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 3 metro

d) DESKRIBAPENA: 3 metrotako zabalera duen hormigoizko bidea. GI-2637 errepideko 71 puntuan hasten da, eta Gozategi goena eta Potentenea baserrien ondotik pasa ondoren, Arbeltxo baserriaren ondoan bukatzen da.

e) KOMUNIKAZIOA: Bide hau inguruko baserri batzuen sarbidea da, eta beste bide batzuentzako komunikabidea.

f) BIDEAREN EGOERA: Bidea orokorrean egoera onean dago, baina zati batzuetan pitzadura batzuk daude, eta bertatik belarra ateratzen da.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: Bide honek, alde batetik, inguruko hainbat baserriei sarbidea ematen die, eta bestetik, hainbat bide komunikatzen ditu. Hori dela eta, erabilera eta zerbitzu publikokoa izanik, inbentarioan sartzea aski izango da formalki udal ondasunera igarotzeko

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Bidearen zatiren bat zorua pitzatuta dauka, zehazki Gozategi goena baserrira iritsi aurretik, hori dela eta, bide okerragora egin aurretik zorua konpontzea beharrezkoa da. Bidearen gainerako zatiak ordea, edozein udal ondasunak behar duen arta-lana egitea baina gehiago ez du behar.

l) ARGAZKIAK:

- 07073-0105: GI-2637 errepidetik aterako argazkia, bertatik bidearen hasiera ikusten da.
- 07073-0106: Bidea Gozategi goena baserrira iritsi aurretik bidean dauden pitzadura batzuk ikusten dira.
- 07073-0112: Bidearen itxura orokorra nabari da, bertan hormigoia zaharra dela eta egoera onean dagoela ikusten da.

01017) DEITURA: 073-074

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 225 metro

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 3 metro

d) DESKRIBAPENA: 3 metrotako zabalera duen bidea, 073-074 bidean hasi eta Gozategi barrena baserrira iristen dena.

e) KOMUNIKAZIOA: Bide hau Gozategi barrena baserriak duen sarbide garrantzitsuena da

f) BIDEAREN EGOERA: Bide honek hormigoizko zorua du eta egoera onean dago.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

i) ESKURATZE DATA: Bide hau antzina-antzinatik Zegamako Udalarena da.

j) EGOERA JURIDIKOA: Gozategi Barrena baserrira sarbidea ematen duen bide honek, erabilera eta zerbitzu publikokoa da. Hori dela eta, bera inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasunean sartzeko.

k) XEDEPEN JURIDIKOA: Fitxa honetako bideari buruz egin daitekeen gomendio bakarra, edozein udal-ondasunek eskatzen duten arta egitea da.

01018) DEITURA: 074-075

a) IZENA:

b) GUTXI GORA BEHERAKO LUZERA: 790 metro

c) GUTXI GORA BEHERAKO ZABALERA: 2 metro

d) DESKRIBAPENA: Gozategi barrena baserrian 073-074 bidea bukatzen da eta bide berri bat hasten da, hasierako zatian zabor-legarreko zorua eta 2,5 metrotako zabalera duena, eta 70 metrotara, bidegurutze batetara iristean, 2 metrotako zabalera jaitsi eta lurrezko zorua duena. Bideak lurrorotako ibilgailu bat pasatzeko zabalera duela ikusten da, baina zati askotan sasiak pertsona bat pasatzea ere ia eragozten dute. Bide hau Segurako udalerritik jarraitzen du.

e) KOMUNIKAZIOA: Pinudi batean sartzen den bidea. Gaur egun ez dirudi erabiltzen denik, baina aitzinean pinuak ateratzeko erabiltzen zen.

f) BIDEAREN EGOERA: Bidea hau abandonatuta dago eta sasiak janda, baina lurrean trazatua zabal bat markatuta du.

g) JABETZA TITULUA: Jabetza titulua ez da ageri, baina antzina-antzinatik udalarena da.

h) JABARI IZAERA: Herri jabariko ondasun bat da.

